

# GARIZUMA

Garizuma prestatzeko sasoi liturgikoa da eta Errauts Asteazkenean hasi eta Aste Santuan amaitzen da, bere izenak adierazten duen bezala, 40 egun irauten ditu. Elizan, Garizumako kolorea morea da.

Asteazken hau horrela deitzen da, elizara joaten bagara apaizak gurutzea egiten digulako bekokian gure bizitza iragankorra dela gogorarazteko. Errautsa aurreko urteko Erramu Igandeko adarrak erretzetik dator.

Gustatzen ez zaigunaz damutzeko eta geure buruaz zerbait aldatzeko garaia da, hobeto izateko eta horrela Jesusengana hurbiltzeko. Bihurketa denbora da eta horrek aldaketa denbora esan nahi du.

Hiru gauza egiteko modukoa da:

- Otoitza, hau da, Jainkoarekin elkarrizketa.
- Baraualdia, hau da, gehien gustatzen zaidana egiteari uztea.
- Karitatea edo limosna, hau da, behar nautenari laguntzeko.

Jolas dezagun: